


2C eranskin elektronikoa (e2C) erabiltzeko gida

Deialdiko bertaratzeen jarraipena egiteko aplikazio informatikoak parte hartzeko konpromiso elektronikoa du. Honakoak dira e2C eranskinaren onurak:

- Baliozkoa da Hobetuzeko deialdiko prestakuntza-ekintza batean langileak hartutako parte hartzeko konpromisoa egiaztatzeko inprimaki gisa.
- Langileari posta elektronikoz bidal dakioko.
- Bete eta inprimatu egin daiteke.
- Datuak sartutakoan, zuzenean bidal dakioko Hobetuzi.
- Planaren titularrak bidalitako e2C eranskinak kudea ditzake eta dagozkion taldeari esleitu diezazkioke.

Bertaratzeetarako aplikazioaren bidez erabil daiteke. Jo prestakuntza-ekintzen zerrendara, hautatu prestakuntza-ekintza bat eta sakatu A2C botoia. Honako elkarrizketa-leihoak agertuko da:



2C eranskina - Diálogo Web

> 2C eranskina

2CEranskinaren link-a eskuratu edo 2CEranskina zuzenean bete nahi duzu?

Link

PDF

Onartu Ezeztatu

PDF aukeratzen baduzu, e2C ikusi eta editatu ahal izango duzu. Nahi izanez gero, formularioa erabil dezakezu langileen datuak editatzeko, inprimatzeko eta grabatzeko. Aurrerago dituzu horretarako xehetasunak.

Link aukeratzen baduzu, Interneteko helbide bat agertuko da elkarrizketa-leihoan. Interneteko helbide hori posta elektronikoz bidaltzeko erabil daiteke edo web-orri batean txerta daiteke.

Datuak bidali ostean, horiek kudeatu ahal izango ditu planaren titularrak. Horretarako, prestakuntza-ekintzaren gainean jarri eta aurrez izena emandakoen gainean sakatu beharko du. Ondorengo bezalako pantaila agertuko da:


The screenshot shows a web browser window with the URL <http://www.hobetus.net/Convocatoria2008/principal.asp>. The page header includes the logo for 'HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua' and 'Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa'. The main content is a table with the following data:

IFK	Ikaslea	Taldea
00000000	[Redacted]	X
00000000	[Redacted]	X
00000000	[Redacted]	2
00000000	[Redacted]	3
00000000	[Redacted]	1
00000000	[Redacted]	2
00000000	[Redacted]	1
00000000	[Redacted]	3
00000000	[Redacted]	2

At the bottom of the page, there are two buttons: 'Taldeari esleitu' and 'Liten'. The footer contains the text 'Hobetus - Convocatoria 2008 / 2008 Deialdia' and the timestamp '13/5/2009 16:21:2'.

Langileak zerrendatuta agertuko dira, NAN, izena eta esleitu zaien taldea adierazita. Zerrenda hori NANaren, ikaslearen edo taldearen gainean sakatuz ordena daiteke.

Ikasle bat esleitu ez bada "X" batekin agertuko da. Langile bat talde bati esleitzeko, hautatu langilea eta sakatu *Taldeari esleitu*. Beste leiho bat agertuko da eta bertan ikusiko da langilea zein talderi esleitu dakioken. Ekintza honetarako titularrak sortutako taldeei esleitu ahal izango zaie langilea.



Talde bati esleitu ondoren, langileen datuak editatu ahal izango dira eta bertaratzeeen aplikazioaren bidez ikusi ahal izango dira.

Esteka posta elektronikoz bidaliko bada, egokia litzateke langileei honakoen antzeko jarraibideak ematea:

Ikastaroan izena emateko, izena emateko formularioa bete eta sinatu behar duzu.

Izena emateko formularioa bete aurretik, honako informazioa ezagutu behar duzu:

- * Gizarte-segurantzako zenbakia (zure soldata-orrian aurki dezakezu).

Lanean ari diren langileen kasuan:

- * Enpresaren izena (zure soldata-orrian aurki dezakezu).
- * Enpresaren IFK (zure soldata-orrian aurki dezakezu).
- * Enpresako plantilla (enpresan egin dezakezu kontsulta edo ordezkari sindikalari edo informazio hori duten beste langile batzuei galde diezaiekezu).
- * Lantokiko posta-kodea (enpresan egin dezakezu kontsulta edo ordezkari sindikalari edo informazio hori duten beste langile batzuei galde diezaiekezu).

Prest zaudenean, sakatu formulariora jotzeko esteka (karga atzeratu egin daiteke zure Interneterako konexioaren arabera - 614 Kb):

http://www.hobetuz.net/convocatoria2008/Manuales/carga_acc2.asp?PfID=4820003&A1Orden=2&Idioma=1

Ez ahaztu galdetegi hau sinatuta aurkeztea prestakuntza-zentroan.

Formularioa egoki erabili ahal izango duzu Internet Explorer 6.0 edo ondorengo nabigatzailearen bat baduzu eta [Adobe Reader 8.1](#) edo ondorengoa instalatuta baduzu. Hemen deskarga dezakezu [Adobe Reader 8.1](#):

http://ardownload.adobe.com/pub/adobe/reader/win/8.x/8.1/esp/AdbeRdr810_es_ES.exe

Funtzionamenduaren eta bidalketen inguruko probak egiteko, honako helbidea erabil daiteke (galdetegi honekin bidalitako datuak ez dira espedientean barne hartuko):

http://www.hobetuz.net/convocatoria2008/Manuales/carga_acc2.asp?PfID=4820003&A1Orden=2&Idioma=0